



**90/2024 EBAZPENA, OSAKIDETZAKO GIZA BALIABIDEEN ZUZENDARIARENA, OSAKIDETZAKO ZUZENDARITZA NAGUSIKO ERIZAINZAKO ESKOLAN ADMINISTRARI LAGUNTZAILE LANPOSTU BAT ALDI BATERAKO BARNE-SUSTAPENAREN/ZERBITZU EGINKIZUNEN BIDEZ BETETZEKO DEIALDIA ARGITARATZEN DUENA.**

**LANPOSTUA: ADMINISTRARI LAGUNTZAILEA.**

**DESTINOA:** Zuzendaritza Nagusia. Erizaintzako Eskola. Bi txanda goizez/arratsaldez (Vitoria-Gasteiz).

**HIZKUNTZA-ESKAKIZUNA:** 2 HE – 2010eko uztailaren 1eko derrigortasun-data

**BALDINTZAK:** (Dokumentu bidez akreditatu beharko dira, Osakidetza CV aplikazioan jasota badaude izan ezik.)

**Aldi baterako barne-sustapeneko eskatzaileentzat:**

- Osakidetza Zerbitzu-erakundeei atxikitako karrerako funtzionarioa, langile estatutarioa edo langile laboral finkoa izatea.
- Zerbitzu aktiboan egotea eta lortu nahi den lanpostuaren titulazio-maila berdinekoa edo baxuagokoa den beste kategoria batekoa izatea.
- Administrari laguntzaile kategoria berean ez izatea karrerako funtzionario, langile estatutario finko edo langile laboral finkoko izendapenik, izendapen edo kontratu horrekiko daukan egoera administratiboa edozein izanda ere.
- Zuzendaritza Nagusiri atxikita egotea langile finko bezala, Zuzendaritza Nagusiko langileen arteko barne-sustapena deialdia denean.
- Zuzendaritza Nagusia ez den beste zerbitzu-erakunde bati atxikita egotea langile finko bezala, zerbitzu-erakundeetako langileen arteko barne-sustapen deialdia denean.
- Kategoria bereko lanpostuan aldi baterako barne-sustapenean egonez gero, egoera horretan urtebete baino gehiago eramatea, etenik gabe.
- Osakidetza-Euskal osasun zerbitzua Ente Publikoko lanpostu funtzionalak eta deitutako azken EPEn Administrari Laguntzaile kategoria horretan eskatzen ziren gainontzeko titulazio eskakizunak arautzen dituen uztailaren 19ko 186/2005 Dekretuak ezartzen duen titulazioa izatea.

Betekizunak eskabideak aurkezteko epearen azken egunean bete behar dira.

**Zerbitzu eginkizunetako eskatzaileentzat:**

- Administrari laguntzaile kategorian, Osakidetza Zerbitzu-erakundeei atxikitako karrerako funtzionarioa, langile estatutarioa edo langile laborala izatea edo Osasun Sistema Nazionaleko gainontzeko Osasun-zerbitzuetako karrerako funtzionarioa edo langile estatutario finkoa izatea.



-Zerbitzu aktiboan izatea eta interesdunak jabetzan lanpostua Zerbitzu-erakunde batean izanda, edo zerbitzu aktiborako behin-behineko itzultzea eginda hari atxikita egonda, beste erakunde ezberdin bateko lanpostuak betetzeko eskaria egitea.

Aipaturiko baldintzak eskabideak aurkezteko epearen azken egunean bete behar dira.

**BALORATUKO DIREN MERITUAK:** (Dokumentuen bidez egiaztatu beharko dira)

**Aldi baterako barne-sustapeneko eskatzaileentzat:**

- EPEko oposaketa-fasea (Gehienez, 100 puntu)
- Lan-esperientzia (Gehienez, 80 puntu)

Eskabideak aurkezteko epea zabaltzen den arte aitortu zaien zerbitzu denbora-tartea hartuko da kontuan.

**Zerbitzu-eginkizuneko eskatzaileentzat:**

- Kategoria honetako lekualdatze-lehiaketaren baldintzetan esperientzia Profesionala. (47,5 puntu gehienez).

Eskabideak aurkezteko epea zabaltzen den arte aitortu zaien zerbitzu denbora-tartea hartuko da kontuan.

**ESKABIDEAK AURKEZTEA:**

Interesdunek eskabidea datu pertsonal guztiekin bete, eta dokumentatutako curriculum vitaearekin batera (Osakidetzaaren aplikazio informatikoan beteta dutenek izan ezik) bidali beharko dute Osakidetza Erakunde Zentraleko Giza Baliabideetako Zuzendaritzara (Araba kalea, 45).

Eskabideak aurkezteko epea 15 egunekoa izango da ebazpena argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

**LEHENTASUN-HURRENKERA:**

Lanpostua betetzeko honako lehentasun-hurrenkera hartuko da aintzat:

1. Zuzendaritza Nagusian aldi baterako barne-sustapena. Sistema hau erabilita lanpostua beteko ez balitz, hurrengo atalean adierazten dena erabiliko litzateke.
2. Zerbitzu-eginkizunak. Sistema hau erabilita lanpostua beteko ez balitz, hurrengo atalean adierazten dena erabiliko litzateke.
3. Zerbitzu-erakundeen arteko aldi baterako barne-sustapena.

**BALORAZIO-BATZORDEA:**

Balorazio-batzordea honela osatuko da Giza Baliabideen Hautaketa eta Horniketako zuzendariordea buru izanda eta Erizaintzako Eskolako Zuzendariak eta Erizaintzako Zuzendariordeak eta Hautaketako Zerbitzuburuak (idazkari jardungo duena) osatua.


**HAUTAKETA PROZEDURA:**

Balorazio-batzordeak baloratuko du interesatuek behar den garaian eta moduan aurkeztutako dokumentazioa. Balorazioa eginda, dagokion izendapena formalizatzeko proposamena egingo da. Balorazio-batzordeak bete gabe utzi ahal izango du plaza, izangaiek eskatutako baldintzak betetzen ez badituzte.

**EBAZPEN HONEN AURKAKO ERREKURTSOAK:**

Ebazpen honen aurka, gora jotzeko errekurtsua ezarri ahalko zaio Osakidetzako Zuzendari Nagusiari, hilabete batean, ebazpena argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Vitoria-Gasteizen, 2024ko martxoaren 4a.

 **Osakidetza**  
Luisa Larrauri Ereñozaga  
GIZA BALIABIDEEN ZUZENDARIA  
DIRECTORA DE RECURSOS HUMANOS

Iz.: Luisa Larrauri Ereñozaga  
**GIZA BALIABIDEETAKO ZUZENDARIA**